

## IRAGARKI LABURRAK, BANDOAK ETA OHARRAK

### INFORMAZIO OROKORRA

**DATAK** Ekainak 12 eta 19

**IRAUPENA** 8 ordu

**MATRIKULA  
EPEA** Maiatzaren 28ra arte

**IKASLE  
KOPURUA** 20 gehienez ere

**IRAKASLEA** Juan Luis Bidarte

**DISEINUA** EMUN

**IKASGELA/  
TOKIA**

Bilbao. IVAP  
Errekalde zumarkalea, 18

**ORDUTEGIA** 09:00-13:00

**ONIRITZI EPEA** Ekainaren 4ra arte

**HARTZAILEAK**

Herritarrei zuzendutako idazki  
laburrak lantzen dituzten langile  
publikoak

**MATERIALA**

**AZPIEGITURA** Ordenagailua eta arbela

### ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU  
OROKORRAK**

Idatzizko komunikaziorako konpentenzietan hobekuntzak ematea, herritar zein lankideekiko komunikazioa arrakastaz eta era ulergarrian egitea. Euskararen kalitatea bermatzea iragarki laburrak, bandoak eta oharrak idaztean

**HELBURU  
ZEHATZAK**

- Iragarki laburrak, bandoak eta oharrak ulertzeko eta kalitatez ekoizteko edukiak eta hizkuntz-estrategiak lantzea, azalpenak emateko hizkuntz-baliabideak lantzea eta egokitasuna eta zuzentasuna bermatzeko ohiko akatsak landu zein tresna berriak ezagutaraztea

- Iragarki laburrak, bandoak eta oharrak egoki burutzeko hainbat eduki gramatikal lantzea: datak, orduak, helbideak, laburtzapenak eta zenbakien zein kopuruen idazkera.

- Era desberdinetako mezu laburrak idaztea honako irizpideak kontuan hartuta:

- Mezularia eta idatzi beharreko mezuaren ezaugarriak
- Helburuaren arabera ohartarazpen mota zehaztea
- Izan daiezkeeen erregistro desberdinak

- Era honetako ohartarazpenetan eragina duten osagai ezberdinak kontuan hartzea:

- Eguna eta ordua
- Nork jasoko duen
- Hainbat datu: izen abizenak, telefono/fax zenbakia, zein sail/erakunde/enpresatakoa...

**GAITASUNAK**

- Komunikazio egoera bakoitzean egokiena den hizkuntz-aldiera aukeratzea
- Idatzizko testuak sortzeko oinarrizko baldintzak ezagutu

## IRAGARKI LABURRAK, BANDOAK ETA OHARRAK

- Gramatikaren ezagutza praktikoa
- Testuinguruaren arabera, erabaki egokiak hartzen jakitea

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

#### METODOLOGIA

Ikastaroa aurrez aurrekoa izango da. Komunikazioa izango du ardatz, eta ikasleen benetako lan-jarduna izango da abiapuntua. Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak izango duen lehentasuna. Azalpen teorikoak emango dira eta hauen bidez baliabide eta estrategia egokienak eskainiko dira unean uneko arazoei aurre egin ahal izateko. Testu eredu onak ardatz harturik hauen lanketaren bidez era honetako testuak arrakastaz sortzeko estrategiak eskainiko dira

#### PROGRAMA

Testu-genero bakoitzaren ezaugarriak landu eta ikasle bakoitzaren errealtatera egokitzea. Testu-genero bakoitzaren eduki gramatikalak landuko dira.

Era berean, kohesio formak, egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuko dira

#### BAJA EPEMUGA

#### EMATEKO

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna

#### EBALUAKETA

Fitxa baten bidez, helburuen betetze-maila neurtzeko adierazle zehatzak ezarriko dira. Hiru ebaluazio-mota egingo dira:

- Hasierakoa: diagnosa egiteko eta ikasleen abiapuntua ezagutzeko. Diagnosi hauen arabera ezinbestekoak diren planteamendu aldaketak egingo dira.

- Jarraitua: idatzizko ekoizpenak, horiek sortzeko prozesua eta ikasleen jarrera hartuko dira kontuan.

- Amaierakoa: azken proba, non ikasleek landutakoa erabiliko duten proba erreal batean

#### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleek gogobetetze-inkesta osatuko dute

- Irakasleak balorazio inkesta beteko du

#### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

**114 €**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zka)

#### PREZIOA

#### OHARRA